

## Erlezaintza

# Nork erabaki zuen erle txikia handitzea?

Eztitan ari den profesional askok ez dakien arren, milioika urtetan iraun duen erlea gaur gure artean nagusi dena baino txikiagoa izan da. Hala diote ostera erle txikia landu beharra aldarrikatzen duten abeltzainek eta adituek, gaurko gaixotasun asko manipulazio horri egotziz. Menturaz oker ari ote dira ia erlezain guztiak?

PELLO ZUBIRIA



Erlearen bizilekua den kofoin edo erlauntza, zabalik. Aberaska edo orrazeak daramatzaten koadroetako bat aterata dago, erleak eta gelatxoak erakusteko.

**ERLEAREN PROPAGANDISTEI** sarritan entzun eta irakurri zaie –erlezain amateur hasiberria den kronista honi ere bai– zientziak *Apis Mellifera* deitu duen horren lana derrigorrezkoa dela munduko landare askoren iraupenerako. Harrotasunez diote erlezainek beraiek direla landare-diaren polinizazioa bermatzen dutenak, ezta, jateko polena, erregina-jelea eta beste produktak ekoizteaz gain. Ez hori bakarrik: kofoinetan *Varroa Jacobsonii* eta bestelako gaixotasunak orokortu direnean, erlezainak dirateke espeziearen iraupenaren bermatzaile.

Baina... egia horrek beste erdia ustela balu? Egia balitz erlearen gaixotasunak lotuta daudela azken ehun urteotan erlezainek xomorro hori oker manipulatu izanari? Frogatuko balitz planeta osoko erlezain gehienek gauzak aldrebes egiten dituztela beren aziendekin?

Hori diote, hain zuzen, erle txikiaren aldekoek, eta proposatzen dute gaur munduan nagusitu diren erleak baino txikiagoak haztera itzuli behar dugula. Ea esplikatu ditzakegun erlauntz baten barrunbeak sekula ikusi ez dituen edonork ulertzeko moduan.

Kofoin edo erlauntza barruan, erleak umeak eta ezta aberaska edo orrazeetan ipintzen ditu. Hau hexagono formako gela txiki dotorez osatuta dago, denek dakitenez. Naturan eta antigoaleko erlauntzetan animaliak bere gisan antola-

tzen zituen aberaskak, bi aldeetatik gelatxo horitutako opilak bailiran. XIX. mendean hasi ziren erledunak argizari edo ezkoz egindako laminak ipintzen, makinaz estanpatutako laminak, erleak lana azkarrago egin dezan. Kontua da abeltzain burutsuenak azkar ohartu zirela hexagono handiagoz estanpatutako laminak ipiniz gero erleek gelatxo handiagoak egiten dituztela, eta horietatik erle handiagoak jaiotzen zirela. Horrela egin zituzten batzuek gero eta erle handiagoak sortzeko esperimenduak.

Numerotan ipinita, kontuak honela geratzen dira: gaur munduko apikulturaren gehienbat 5,4 edo 5,7 milimetroko diametroa duten gelaxkako laminak erabiltzen dira. Aldiz, erle txikiaren aldekoek 4,9 milimetroko gelatxoak dituen aberaska aldarrikatzen dute, jatorrizkoen tamainatik hurbilago dagoelako.

Dezima gutxi horiek hain inportanteak ote diren? Bai, antza denez. Batetik, gela handietako erleak txikietan sortu direnak baino heren bat handiagoak hazten dira bolumenez. Bigarrenik, 5,4 milimetrokoetan arrautzatik jaiotzen egun bat edo bi gehiago behar dituzte 4,9 mmkoetan baino. Bestalde, azalera berdineko aberaskan gela txiki gehiago sartzen da handi baino, eta erle txikiak askoz ugariago jaiotzen dira. Aberaska barruan, ondorioz, tenperatura pare bat gradu beroago egoten da 4,9koetan, gela handikoetan

## Erlezaintza

baino. Diferentzia horietan dakusate erle txikiaren aldekoek gaurko erle “modernotuaren” arazo askoren iturria. Horien ustez, erle hau berez naturaz dagokiona baino handiagoa egin da, eta aldiz genetika guztia txikiagoa izateko dauka programatuta. Horregatik gaurko kolonia gehienak estresatuta eta ahulduak daude.

Gainera, oharkabean bidea ireki zaie Varroa zorri famatuari eta beste gaixotasun gehiagori. Varroa erlearen gelatxo barruan hazten da umearekin batera, eta erle “modernotuei” arrautzatik jaio arteko epea kasik bi egunez luzatu zaenez, bizkarroari garatzeko aukera handiagok eman zaizkio. Bestalde, erle handien habietan tenperatura pare bat gradutan apalagoa da, eta honek ere mesede egiten dio Varroari.

Ordainetan, erle txikiarekin lan egiten dutenek diote animalia askoz sanoagoa daukatela, Varroa eta beste gaitz batzuei inolako botikarik gabe aurre egiteko gauza dena, eta etorkizuneko erlezaintzak derrigor hortik jo behar duela.

### 5,4 mm-tik 4,9 mm-ra tartea dago

Duela ehun urte hasi ziren erleak handiagotzen. Ordura arte aberaskari ezta argizari eta guzti kentzen zitzaion, baina koadro aldagarriak eta lamina estanpatuak erabiltzen hasi zirenean, horrela erleak lan gutxiago egin behar zuen ezkoa produzitzen, gero aberasketatik ezta zentrifugazioz kendu zitzaion, urte bateko aberaskak hurrengoan erabiltzen ziren.

Erlearen beraren manipulazioaz aritzerakoan beti aipatzen da jakintsu belgikar bat, Ursman Baudoux. Honek eta berak bezala biologia Lamarck-en begietatik ikusten zutenek uste zuten manipulatuak abereek ondoko belaualdietan “hobetze” horiek gordeko zituztela beren genetikan. Ez da hala gertatu, Charles Darwin-en ikuspegiak arrazoi duela: gaur gure erlezainek hazten dituzten animaliok beren gisan libre utziz gero, berriro aspaldiko neurrietara itzultzeko joera dute.

Azken urteotan munduko erlezain asko aritu dira gai honetan sakontzeko ahaleginetan. Ikerketarik famatuena Ed eta Dee Lusby bikoteak eta Michael Bush-ek burutu dituzte. Lusbytarrek beren esperientzia enpirikoaz gain apikulturako literatura guztia aztertu dute, haiek dira erreferentzia teoriko nagusiak. Bushek lan handia egin du erlezaintza biologiko edo organikoan. Informazio gehiena ingelesez dago, baina berrikitan Kanariar Uharteetan bizi den Stephan Braun erlezain alemanak zati bat ipini du gaztelaniaz.

Europar badira erle txikiarekin ari diren abeltzain ugari, eta Suediako etxe komertzial batek saltzen ditu 4,9 mmko laminak. Erle txikiarekin ari direnek diote posible dela Varroa borrokatzea botikarik gabe, erleek beraiek hartzen dutela



Goiko argazkian erlea jaiotzeko unean, gelatxotik ateratzen, inudea aldamenen duela. Lerroon ondokoan, 4,9 milimetrotako gelatxoak dituen argizarizko lamina; gainean daukan zinta metrikoan hamar gelatxo neurtu dira.



horretarako aski indar, eta koloniak askoz sanoago hazten direla. Garrantzia handiko gaia da, ezen eta gaur egun erlategiak bizirik irauteko urtean bi aldiz tratatu beharra baitago intsektizidaz. Ekologiaren ikuspegitik, zentzugabea dirudi munduko polinizazioaren arduradunetako den xomorroak bizirik iraun dezan gizakiaren intsektizida kimikoen beharra izatea.

Erleak 5,4 mmko gelatxoan jaio eta handiagoa izanik ere txikiagotzeko joera du, bidea libre uzten bazaio. Baina 4,9 mmraino txikiagotzeak badu zenbait zailtasun, aipatu adituek urratsez urrats esplikatzeko dituztenak. 5,4mmko erleari uzten bazaio bere aberaska libreki egin dezan, lehen urratsean 5,1 mmraino txikiagotzen da. Bi belaunaldi, bi urrats, behar dira 4,9 mm arteko trantsizioa egiteko.

La Palma uharteetan bizi den Stephan Braun hasi da saltzen “kit” bat, urrats horiek azkar eta erraz egiten laguntzeko. Beste askoren ildoari jarraiki, udaberri honetan Gipuzkoako hiru erlezain dira operazio horretan hastekotan, Braunen laguntzarekin.

Erle txikiaren gaiak azientaririk ez duen edozein herritarri naturaz eta ekologiaz hausnarketa egiteko puntua ematen dio. Baina XXI. mende hasierako erlezainek zorrotz aztertu eta eztabaiatu beharko dute kontu hau. Erlearen bizirau-pena kimikari lotuta daukan erlezaintza ez da jasangarria, iraultza eskatzen ari da. ■

<http://www.argaia.com/erlea-apiterapia> blogean, gaiari buruzko erreferentzia interesgarriak.